

BESTELAKO XEDAPENAK

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

4788

EBAZPENA, 2012ko irailaren 25ekoa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, zeinen bidez argitaratzen baita Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Batzordearen Akordioa, Kiroleko dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Euskal Autonomia Erkidegoko Legeari buruzkoa.

Konstituzio Auzitegiaren urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 33.2 artikuluan aurreikusten den erabakia hartu ondoren, eta artikuluko horren c) idatzi-zatian ezarritakoarekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT:

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Batzordearen Akordioa, Kiroleko dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Euskal Autonomia Erkidegoko Legeari buruzkoa. Ebazpen honen eranskinean jaso da, hain zuzen ere, akordioa.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko irailaren 25a.

Lehendakaritzako idazkari nagusia,
JOSÉ MANUEL SALINERO FEIJOO.

2012ko urriaren 30a, asteartea

ERANSKINA

ESTATUKO ADMINISTRAZIOAREN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ADMINISTRAZIOAREN ARTEKO ALDEBIKO LANKIDETZA BATZORDEAAKORDIOA, ESTATUKO ADMINISTRAZIOAK ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ADMINISTRAZIOAK OSATUTAKO ALDEBIKO LANKIDETZA BATZORDEARENA, KIROLEKO
DOPINAREN AURKAKO EKAINAREN 21EKO 12/2102 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
LEGEARI BURUZKOA

Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzak Batzordeak, 2012ko irailaren 24an egindako bilkuran, akordio hau hartu zuen:

1.– Kiroleko dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Euskal Autonomia Erkidegoko Legearen zenbait artikulua direla-eta sortutako desadostasunak ebazteko negoziazioei ekitea; hona hemen artikulak: 12.9 artikulua 13.1 artikulua dela-eta; eta 19.1 eta 21.1 artikulak.

2.– Lantalde bat izendatzea, Aldebiko Lankidetzak Batzordeari konponbide bat proposatzeko.

3.– Urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 33.2 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, jakinaraztea akordio hau Konstituzio Auzitegiari, 2012ko irailaren 29a baino lehen; eta horretaz gain, Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Madril, 2012ko irailaren 24a.

Ogasun eta Herri Administrazioetako ministroa,
CRISTÓBAL MONTORO ROMERO.

Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioetako sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.